



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko azaroaren 17a

31. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu eta gainerako administrazio publikoak premiatzen dira adieraz dezaten indarkeria matxistaren aurkako borroka estatu-auzia dela. Unión del Pueblo Navarro, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldek eta Nafarroako Alderdi Popularreko eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteek aurkeztu dute (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da urtea amaitu baino lehen txosten bat aurkez dezan, non deskribatuko baitira Banku Publikoko formularen bat sortzeko prozesua abian jartzeko beharrezkoak diren jarduketak eta baliabideak. Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du Nafarroako Gobernuaren lehendabiziko ehun egunen balantzean nafar gehienei izan ordez gutxiengo bati mesede egitearen interesa lehenetsi dela. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (5. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Parisko atentatu terroristaren biktimekiko elkartasuna adierazten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Parisko atentatu terroristaren biktimekiko elkartasuna adierazten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren erakundeak egina, kostu bidezko eskualdaketetan hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren subjektu pasibo denari buruzkoa (8. or.).

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta gainerako administrazio publikoak premiatzen dira adieraz dezaten indarkeria matxistaren aurkako borroka estatu-azua dela.**

*UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO, GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, PODEMOS-AHAL DUGU ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEEK ETA NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKAR-TEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeek eta Nafarroako Alderdi Popularreko eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-teeke aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta gainerako administrazio publikoak premiatzen baitira adieraz dezaten indarkeria matxistaren aurkako borroka estatu-azua dela.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeetako eledunok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dugu, 2015eko azaroaren 19ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Berdintasunaren aldera aurrera egitea da genero-indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko modurik onena.

Emakumeen eta neskatilen aurkako abusuak eta jazarpenak giza eskubideen urratze larri bat

dira, bai eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun sozialen adierazpiderik bortitzena ere. Beraz, egiturazko arazo bat da, pertsonak beren generoaren arabera dituzten botere-egoerei zuzenki lotutakoa. Gizonezkoek gizartean eta imaginario kolektiboan duten posizio nagusiaren abusu bat da indarkeria, eta, neurri horretan, emakumezkoen diskriminazioa iraunarazteko adierazpen eta tresna ere bada aldi berean.

Horren ondorioz, pertsona guztien arteko berdintasun erreal eta eraginkorraren alde egitea da indarkeria sexistaren arrazoiei benetan aurre egiteko modu bakarra.

Emakumeen aurkako indarkeriaren arazo sozialak dimentsio anitz dituenez, egiturazko ikuspegi baten testuinguruan kokatzeaz gainera, erantzun orokor bat eman beharra dago. Ez da nahikoa diskriminazio agerikoenak desagerraraztera bideratutako jarduketak egitea; aldiz, bi jarduketa-esparru handi integratu behar dira modu harmoniatsuan: prebentzioa eta erakundeen arreta.

1995etik, terrorismo matxistak 1.383 emakume erail ditu. Aurten, orain arte, 86 emakume erail dituzte zenbait gizonezkoek. Emakumezkoek eta adingabeek forma askotan jasaten dute indarkeria patriarkala, eta icebergaren punta besterik ez da hori.

Mugimendu feministak salatu bezala, azken urteotan murrizketa sistematikoak pairatu ditugu hainbat arlotan, hala nola baliabide publiko orokorretan, sexu-eskubideetan eta ugaltze-eskubideetan, 16 eta 17 urte bitarteko adingabeen haurdunaldiaren etete boluntarioan, bai eta indarkeria matxisten aurkako baliabide espezializatue-

tan ere. Pertsona bakoitzari deia egiteko unea da, erakunde bakoitzari, alderdi politiko bakoitzari, gobernu bakoitzari, basakeria horren konplize ez izateko eta erakundeen erantzuna arintzeko.

Arazoaren dimentsio eta garrantziaz jabetu behar dira botere publikoak, horixe baita indarkeria sexistari eraginkortasunez aurre egiteko oinarritzko baldintza. Funtsezko eskubideen urratze bat da, herritarren erdiarengan –zuzenean edo zeharka–eragina duena; beraz, segurtasunaren edo osasun publikoaren beste arazo sozial larrietan erabiltzen dena bezalako erabakigarritasun batez ekin behar zaio gai horri. Ez dago inprobisaziorako lekurik, ezta jarduketa sinboliko eta boluntarismoetarako ere.

Mugimendu feministak zenbait proposamen landu ditu, eta alderdi zein erakundeei eskatzen die haien programetan eta erakunde-lanean sar ditzaten; eta kontsentsuz eskatzen du hori mugimendu feministak, nahiz eta bere baitan pluraltasun handia, desberdintasun estrategikoa, dibertsitate taktikoa eta paradigma teoriko desberdinak biltzen dituen.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu eta gainerako administrazio publikoak premia-tzen ditu:

1. Adieraz dezaten indarkeria matxistaren aurkako borroka estatu-auzia dela.

2. Adieraz dezaten Istanbulleko Hitzarmena garatu eta aplikatu behar dela, bai eta CEDAW konbentzioaren gomendioak ere; halaber, 14/2015 Foru Legearen aplikazioa ere sendotu behar da, emakumeen eta neskatilen aurkako indarkeria mota guztiak islatuta egon daitezzen.

3. Adieraz dezaten gizarte osoak, eta bereziki bere erakundeek eta instituzioek, indarkeria matxistak prebenitzeko eta desagerrarazteko konpromisoa hartu behar dutela, baita indarkeria jasaten duten emakumeei laguntzeko eta ordaina emateko ere, edozein dela ere haien egoera administrati-boa, eta arreta-prozesuetan biktimizazio multiplean erori gabe. Izan ere, honako hau da funtsezko helburua: emakumeei laguntzea errekuiperatzeko, ahalduztzeko eta erabateko autonomia bilatzeko prozesuan.

4. Adieraz dezaten beharrezkoa dela komuni-kabideen inplikazioa tratamendu egokia eskaintzeko emakumeen eta neskatilen aurkako indarkeria guztien aurrean, haien tratamenduan sentsazionalismo morbosoa saihestuta, eta hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabilia.

5. Gure elkartasuna adieraz diezaiegun emakume erasotu edo/eta erailei, indarkeria sexista muturrekoenaren biktima diren aldetik, laguntza osoa eskaintzen diegu haiei eta haien familiei.

6. Herritar guztiak, eta oso modu berezian neska eta mutil gazteak, gonbida ditzagun konpromiso pertsonal eta kolektiboak hartzera emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde, bai eta azaroaren 25ean Emakumearen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna dela-eta eginen diren ekitaldietan modu aktiboan parte hartzera ere.

Iruñean, 2015eko azaroaren 10ean.

Foru parlamentariak: Ana San Martín Aniz, María Solana Arana, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano, Teresa Saez Barrao, Nuria Medina Santos, Ana Beltrán Villalba eta Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urtea amaitu baino lehen txosten bat aurkez dezan, non deskribatuko baitira Banku Publikoko formularen bat sortzeko prozesua abian jartzeko beharrezkoak diren jarduketak eta baliabideak.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita urtea amaitu baino lehen txosten bat aurkez dezan, non deskribatuko baitira Banku Publikoko formularen bat sortzeko prozesua abian jartzeko beharrezkoak diren jarduketak eta baliabideak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren jatorria jabeldura bat da, garapen ekonomiko eta

sozialerako finantzaketa eskuratzeari buruz 2015eko azaroaren 12an 9-15/ITP-00006 espedientearekin eztabaidatutakoa.

Azaroaren 12an, parlamentari honek bul-tzatutako eztabaida egin da, gizarte oren garapen ekonomiko eta sozialerako finantzaketa-tresnen garrantziari buruz; zehazki, Nafarroan. Jabeldura horren eztabaidan, Nafarroako Gobernuak abian jarri dituen lan-ildoak azaldu zituen. Parlamentari honek hau azpimarratu nahi du, lan-ildo horien artetik: txosten bat egitea, aztertze aldera zein diren aukerarik eta formularik egokie-nak kasuko urratsak egin daitezen Nafarroako gizarteak ezartzen dituen pertsonen, enpresen, erakundeen eta helburu sozialen zerbitzuko finan-tza-entitate publiko bat sortzeko.

Hori dela-eta, parlamentari honek honako era-baki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako herrita-rrei finantzaketa-tresna publiko bereki bat ematea-ren garrantziaz jabetuta, Nafarroako Gobernua premiatzen du 2016a amaitu baino lehen txosten bat aurkez dezan Nafarroako Parlamentuan, non deskribatuko baitira Banku Publikoko formularen bat sortzeko prozesua abian jartzeko beharrezko-ak diren jarduketak eta baliabideak.

Iruñean, 2015eko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du Nafarroako Gobernuaren lehendabiziko ehun egunen balantzean nafar gehienei izan ordez gutxiengo bati mesede egitearen interesa lehenetsi dela.**

### *ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du Nafarroako Gobernuaren lehendabiziko ehun egunen balantzean nafar gehienei izan ordez gutxiengo bati mesede egitearen interesa lehenetsi dela.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko, iragan azaroaren 12ko Osoko Bilkuran aurkeztutako jabelduraren ondorioz –9-15/ITP-00007 espediente zenbakia–, eta heldu den azaroaren 19ko Osoko Bilkurako gai zerrendan sar dadin eskatzen du.

Nafarroako Gobernuaren lehendabiziko ehun egunetan ez da neurririk hartu enplegua sortzera, nafarren gizarte-ongizatera eta enpresa berrien inbertsiorako eta ezarpenerako ingurune mesedegarri bat sortzera bideratuta.

Alabaina, Foru exekutiboak bai hartu ditu gure herritarrengan ziurgabetasuna, kezka eta haustura soziala ekarri duten neurriak.

Nafarroako Ubidea eta abiadura handiko tren bezalako obra handiak geldiarazi eta berrikusi izanak erakusten du Gobernu honek ez daukala

batere interesik Nafarroaren aurrerabidea delata.

Ingeleseztik Ikasteko Programa berrikusteko geldiarazi izanak argi erakusten du Foru exekutiboarentzat euskarak daukala lehentasuna, gure ikasleen etorkizunaren kaltetan bada ere; izan ere, Espainiako beste erkidego batzuetakoak baino lehiakortasun-baldintza okerragoetan egon dira gure ikasleak lan bat aurkitzeko orduan.

Gaztelaniaren eta ingelesaren kaltetan euskaraz jakin beharra eta euskararen sustapena inposatzen direla argi eta garbi ondorioztatzen da Foru gobernuak planteatutako lan publikoaren eskaintzatik, nahiz eta hizkuntza hori ez duen ezagutzen nafarren % 13k baino.

Horiek guztiak neurri sektarioak dira, gutxi bartzuen interesak asetzera bideratuak, gehiengoaren interesen kaltetan.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

**1.** Nafarroako Parlamentuak erabaki du nafar gehienei izan ordez gutxiengo bati mesede egitearen interesa lehenetsi dela Nafarroako Gobernuaren lehendabiziko ehun egunen balantzean, neurri sektarioak eta aurrerabidea nahiz gizarte ongizatea geldiarazten dutenak hartu baitira, hala nola: proiektatutako azpiegitura handiak geldiaraztea eta berrikustea; Ingeleseztik Ikasteko Programa geldiaraztea; euskara gaztelaniaren eta ingelesaren gaintetik inposatzea, Hezkuntzako lan publikoaren eskaintzak argi erakusten duenez. Aldi berean, Gobernu honek nafarrei eta Nafarroako enpresei Espainia osoko presio fiskalik handiena ezarriko die 2016an.

**2.** Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernuak bere lehendabiziko ehun egunetan ez duela neurririk hartu enplegua sortzera, nafarren ongizatea hobetzera edo Nafarroaren garapen ekonomikoa ahalbidetzera bideratuta, eta, hartara, ez diela jaramonik egin nafarren kezkarik eta beharizanik behinenei.

Iruñean, 2015eko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Parisko atentatu terroristaren biktimekiko elkartasuna adierazten baitu.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako herriaren ordezkari legitimoa den aldetik, honako adierazpen instituzional hau egiten du:

1.- Gure gogoia, beste ezer baino lehen, Parisko atentatu terroristen biktimekin dago. Nafarroako Parlamentuak eta berak ordezkatzeko duen herriak biktimekiko elkartasunik sakonena adierazi nahi dute, eta bat egiten dute beren saminarekin. Erakunde honek haien ondoan egon nahi du, bai eta Frantziako herriaren ondoan ere, laguntzeko prest, eta bere maitasun zintzoa helarazi nahi die une latz hauetan.

2.- Nafarroako Parlamentuak eta berak ordezkatzeko duen herriak zalantza-izpirik gabe gaitzesten dute indarkeria terrorista oro, eta adierazten dute inongo ideologiak ez duela justifikatzen giza eskubideak urratzea helburu politikoak, erlijiosoak edo beste edozein gisatakoak lortzeko.

3.- Berretsi egiten dugu askatasunaren, demokraziaren eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako balioen alde gaudela; izan ere, gure pentsamoldearen oinarri dira, eta Nafarroako herriak ez die horiei inolaz ere uko egiten.

4.- Nafarroako Parlamentuak eta berak ordezkatzeko duen herriak ahal duten neurriko laguntza emanen dute egia ezagutzeko, justizia erdiesteko eta biktimekin erreparazioa lortzeko, eta eskatzen zaie guztia egiten dute biktimekin memoria bizirik mantentzeko.

5.- Nafarroako Parlamentuak Foru Komunitateko herritarrak prematzen ditu adierazpen honekin bat egin dezaten eta indarkeria terrorista arbuiaitzeko eta biktimei elkartasuna adierazteko egiten diren ekitaldi guztietan parte har dezaten.

6.- Adierazpen hau helaraztea Frantziaren Iruñeko Kantsulatuari eta Frantziaren Espainiako Enbaxadari”

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Parisko atentatu terroristaren biktimekiko elkartasuna adierazten baitu.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako herriaren ordezkari legitimoa den aldetik, honako adierazpen instituzional hau egiten du:

1. Gure gogoia, beste ezer baino lehen, Parisko atentatu terroristen biktimekin dago. Nafarroako Parlamentuak eta berak ordezkatzeko duen herriak biktimekiko elkartasunik sakonena adierazi nahi dute, eta bat egiten dute beren saminarekin. Erakunde honek haien ondoan egon nahi du, bai eta Frantziako herriaren ondoan ere, laguntzeko prest, eta bere maitasun zintzoa helarazi nahi die une latz hauetan.

2. Uste dugu Parisen gertatutakoa oso larria dela, populazio zibilaren aurkako eraso anker eta bidegabea izan baita.

2. Uste dugu Parisen gertatutakoa oso larria dela, populazio zibilaren aurkako eraso anker eta bidegabea izan baita.

3. Nafarroako Parlamentuak eta berak ordezkatzeko duen herriak zalantza-izpirik gabe gaitzesten dute indarkeria terrorista oro, eta adierazten dute inongo ideologiak ez duela justifikatzen giza eskubideak urratzea helburu politikoak, erlijiosoak edo beste edozein gisatakoak lortzeko.

4. Berretsi egiten dugu askatasunaren, demokraziaren eta Giza Eskubideen Adierazpen

Unibertsalean jasotako balioen alde gaudela; izan ere, gure pentsamoldearen oinarri dira, eta Nafarroako herriak ez die horiei inolaz ere uko egingen. Hori horrela, aldarrikatzen dugu Parisen gertatutakoari eman beharreko erantzunak oinarri hartu behar dituela giza eskubideak eta irizpide demokratiko funtsezkoak, eta ez giza eskubideen murrizketa, segurtasuna jarrita askatasunaren gaineretik.

5. Uste dugu Parisen egunotan bizi duten sufri-menduaren parekoa bizitzen dutela munduko beste edozein lekutan taldeon indarkeria nahiz beren aliatu europarrena dagoenean. Horregatik, aldarrikatzen dugu inork indarkeriarik ez erabiltzea errugabeen aurka, inork armarik ez saltzea bere probetxurako, eta inongo kanpo-politikak gerra gehiago ez eragitea.

6. Nafarroako Parlamentuak eta berak ordezkatzeko duen herriak ahal duten neurriko laguntza emanen dute egia ezagutzeko, justizia erdiesteko eta biktimen erreparazioa lortzeko, eta eskatzen zaien guztia egingen dute biktimen memoria bizirik mantentzeko.

7. Nafarroako Parlamentuak Foru Komunitateko herritarrak premiatzen ditu adierazpen honekin bat egin dezaten eta indarkeria terrorista arbuiatzeko eta biktimei elkartasuna adierazteko egiten diren ekitaldi guztietan parte har dezaten.

8. Adierazpen hau helaraztea Frantziaren Iruñeko Kotsulatuari eta Frantziaren Espainiako Enbaxadari:"

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren erakundeak egina, kostu bidezko eskualdaketetan hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren subjektu pasibo denari buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Adieraztea Nafarroako Arartekoaren erakundeak egindako ondoko txostenaren jakinaren gainean dagoela: “Kostu bidezko eskualdaketetan hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren subjektu pasiboari buruzko txosten berezia”.

**2.** Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Txostenaren azalpena Foru Araubideko Batzordearen bilkura batean eginen dela xedatzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren erakundeak egina, kostu bidezko eskualdaketetan hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren subjektu pasibo denari buruzkoa**

**AURKIBIDEA**

- I.** Sarrera. txostena egiteko arrazoiak eta xedea (8. or.).
- II.** Erreferentziako lege-esparrua. Azterketa (9. or.).
  - 2.1. Foru legeria (9. or.).
  - 2.2. Estatuko legeria (10. or.).
  - 2.3. Gainbalioen zerga ordaintzearen inguruko itun pribatuak (10. or.).
  - 2.4. Jurisprudentzia (11. or.).
- III.** Nafarroako Arartekoari aurkeztutako kexak, proposamenak eta kontsultak (12. or.).

3.1. Kexak (12. or.).

3.2. Herritarrengandik jasotako proposamenak (12. or.).

3.3. Kontsultak (13. or.).

**IV.** Ondorioa eta iradokizuna (13. or.).

**I. SARRERA. TXOSTENA EGITEKO ARRAZOIAK ETA XEDEA.**

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 16. c) artikulua xedatzen duenez, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak eskumena du “Legediarren hutsuneak ikusarazteko eta gomendioak emateko, administrazioaren jarduna eta zerbitzu publikoak behar bezain objektiboak izan daitezen eta herritarren eskubideak modu eraginkorrean bermatzea”. Gomendio horiek Parlamentuari eta erakundearen ikuskapen-esparruaren mendeko edozein entitate publikori –eta horietako bat Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa dazuzendu ahalko zaizkio.

Bestalde, foru lege bereko 17. artikulua eskumena ematen dio Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari, besteak beste, organo eta zerbitzu eskudunekin lan eginez, konponbide egokienak bilatzeko pertsonen interes legitimoak babeste aldera.

Bestela, Foru Lege bereko 36.2 artikulua eskumena ematen dio Nafarroako Arartekoari, egitateen garrantziak horretarako bide ematen duenean, Nafarroako Parlamentuari txosten monografiko bat aurkezteko.

Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga dela-eta, haserre dauden herritarren kexak jaso dira erakunde honetan. Izan ere, “gainbalioen gaineko zerga” izenarekin ezagunagoa den hori Nafarroako udal ogasunei ordaindu behar diete, e-



txebizitza edo etxe bat –gehienetan, bizilekua izateko– hirugarren bati erosten diotenean.

Zerga ordaintzera behartuta dauden herritarrek ezin dute ulertu zergatik ordaindu behar dioten tokiko ogasunari gainbalioen gaineko zerga, etxebizitzaren eskuratzaille direlarik, gainbalio hura sortu ez badute eta onurarik atera ez badiote. Are gehiago harritzen dira, estatuko legeriarekin bat, ordaindu beharra saltzaileek dutela –eta ez beraiek– jabetzen direnean. Eta erabat harrিতuta uzten ditu zerga ordaintzeko beharra zergadunaren “ordezko” izateagatik dagokiela jakiteak, legearen arabera, zerga ordaindu beharra saltzaileak baitu. Izan ere, berari jasanarazi “ahal zaio,” zerga-justiziaren arloko kontua erosle eta saltzailearen arteko harreman juridiko-pribatura pasatzen denean.

Hau da, formalki eta legearen arabera, zergaduna etxebizitzaren edo etxearen saltzailea bada ere, egiaz, eroslea izaten da tokiko ogasun-bulegoetan ordainketa egitera behartuta dagoena, eta egiaz, berriz ere, ogasunari ordaindutakoa gutxitan jasanarazten dio erosleari. Horrela, forma eta legearen itxurapean, benetan gertatzen dena hau da: ondasun bati dagokion gainbalioen gaineko zerga, hau da, aurreko erosketaren eta oraingo salmentaren bitartean gertatu den balio-gehitzeagatik ordaindu behar den zerga, azken erosleak ordaintzen du, eta ez ondasuna erabili duen saltzaileak, gainbalioa azken horrek ondasuna zeukan bitartean sortu edo lortu bada ere.

Laburbilduz, gainbalioarekin zerikusirik ez duenak ordaintzen du zerga. Zentzugabekeria hori sortzen duten eta aritzeko era nolabait azaltzen duten arrazoiak, jurisprudentiak eta toki-erakundeen ordezkariak aitortu dutenez, erosoak dira tokiko ogasunaren ikuspuntutik, zerga "katebegirik ahulenari" eskatzeak ordaintzea bermatzen duela (izan ere, eskuratzailleak, ondasun higiezinak Jabetza Erregistroan inskribatu aurretik, ondasuna dagoen udalerrian zerga ordaindu dela egiaztatzen behar du).

Konstituzioaren 31.1 artikuluari jarraiki, zerga-sistemaren oinarri “zerga-justiziaren” printzipioak izan beharko luke (herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharrei buruzko I. tituluan jasota). Ideia horren arabera, gainbalio baten ondorioz sortutako zerga gainbalioa sortu eta erabili duenak ordaindu beharko luke. Hala ere, Nafarroan, toki-ogasunen erosotasuna eta zerga biltzea bermatzeko nahia dela-eta, justiziaren printzipio hura desagertu egiten da, eta erosleak ordaintzen du zerga.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 33.

artikuluak xedatzen duenarekin bat, arartekoak Administrazioaren egintzak eta ebazpenak sortzean erabilitako irizpideak aldatzeko eskatu ahal du; halaber, egindako ikerketen ondorioz arartekoa ziur badago araua zorrotz aplikatzeak justiziaren aurkako edo herritarren kalterako egoerak sor ditzakeela, organo legegile eskudunari hura aldatzeko eskatu ahal dio.

## II. ERREFERENTZIAKO LEGE-ESPARRUA. AZTERKETA.

### 2.1 FORU LEGERIA.

Nafarroako Toki Ogasunen 2/1995 Foru Legeak, 172.1 artikuluan, zera adierazten du: “Hiri lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga zuzeneko zerga da. Horrekin hiri izaerako lursailen batek izan dezakeen balio gehikuntza kargatzen da, lursailaren jabetza edozein tituluren bidez transmititzen denean edo haren gainean jabaria mugatzen duen edozein gozamen eskubide erreal eratzten edo transmititzen denean, gehikuntza hori ageri jartzen bada.”

Zergaren subjektu pasiboari dagokionez, aipatutako Foru Legeko 174. artikulua xedatzen du:

“Hurrengoak dira zergaren subjektu pasiboak, zergadun moduan:

a) Lurren transmisioetan edo irabazi gisa jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealek eraketa edo transmisioetan, lursailaren eskuratzaillea edo eskubide erreala eratzten zaion edo transmititzen zaion pertsona.

b) Lurren transmisioetan edo jabaria mugatzen duten kostu bidezko gozamen eskubide errealek eratu edo eskualdatzean, lurraren transmititzailea edo eskubide erreala eratzten duen edo transmititzen duen pertsona. Hala ere, eskuratzaillea zergadunaren ordezkari izanen dira, baldin eta eskuratzailleak ez badira salbuespen subjektiborik duten pertsonak edo erakundeak.

Eskuratzaillea zergadunaren ordezkari den kasuetan, aurreko paragrafoan xedatutakoarekin bat, zilegi izanen da kargaren zenbatekoa eskualdatzen duenari jasanaraztea.”

Bestalde, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 3/2000 Foru Lege Orokorrek bere 23. artikuluan zera jasotzen du: “Zergadunaren ordezkari izango da, foru legearen aginduz, zerga-betebehar nagusiaren prestazio material eta formalak zergadunaren ordezkari bete behar dituen subjektu pasiboa.”

Horrenbestez, arestian adierazi dugun bezala, jabaria eskualdatzearen ondorioz ondasun higiezinak izaten duten balio-gehikuntzari ezartzen zaio

gainbalioen gaineko udal-zerga, eta Nafarroan, lurren kostu bidezko eskualdaketetan, toki-erakundeek zerga ordaindu behar diena eskuratzailerak (zergadunaren ordezkoa izateagatik) izaten da, zergaren zenbatekoa eskualdatzailerari jasanarazteko aukera badu ere.

## 2.2 ESTATUKO LEGERIA.

Nafarroako araudia nahiko desberdina da kasuari buruzko estatuko legeriak esaten duenaren aldean.

Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga Tokiko Ogasunak arautzeko Legearen testu beteginaren aldaketa onartu duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan dago araututa.

Dekretuaren 106. artikulua honako subjektu pasibo hauek aipatzen ditu, zergadun gisa:

a) Lurren kostu gabeko eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealen kostu gabeko eraketan edo eskualdaketan, lurra eskuratzen duen edo dena delako eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen zaion pertsona fisiko edo juridikoa, edo bestela, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Legearen 35. artikuluko 4. apartatua aipatutako entitatea.

b) Lurren kostu bidezko eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealen kostu bidezko eraketan edo eskualdaketan, lurra eskualdatzen duen edo dena delako eskubide erreala eratu edo eskualdatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa, edo bestela, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Legearen 35. artikuluko 4. apartatua aipatutako entitatea.

2. Aurreko apartatuko b) letran aipatutako kasuetan, lurra eskuratzen duen pertsona fisiko edo juridikoa, edo Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Legearen 35. artikuluko 4. apartatua aipatutako entitatea, nahiz eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen zaiona, zergadunaren ordezko subjektu pasibo izanen da, baldin eta zergaduna Espainian egoitzarik ez duen pertsona fisiko bat bada.”

Araudiaren arabera, kostu bidezko eskualdaketetan, eskualdatzailerak da zergaren subjektu pasiboa, eskuratzailerak, berriz, horren ordezkoa baino ez da izaten, eskualdatzailerak Espainian egoitzarik ez duen pertsona fisiko bat denean. Hortaz, legeak kasu horretan baino ez du onartzen eskuratzailerak zergadunaren ordezko izatea, eta hori ulergarria da, zergaduna Espainian egoitzarik ez duenez, zerga-betebeharrak dituen esparrutik ihes egin dezakeelako.

Aurreragoko estatuko araudiak zergadunaren ordezkoren izaera erosleari esleitzen zion, egun, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak egiten duen bezalaxe. Zehazki, toki-araubidearen gaitan indarreko legezadunaren testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 354.1 c) artikuluko arabera, zergadun gisa, zerga ordaintzera behartuta zegoen “kostu bidezko eskualdaketetan, eskualdatzailerak, baina eskuratzailerak zergadunaren ordezkoa izango da.”

Hala eta guztiz ere, Legegintzako Errege Dekretu hura indargabetu zen tokiko ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen bidez. Hain zuzen, azken horren 107. artikuluan –jatorrizko idazkeraren arabera– kostu bidezko eskualdaketetan, zergaren subjektu pasibo gisa, “lurra eskualdatzen duen edo dena delako eskubide erreala eratu edo eskualdatzen duen pertsona” aipatu da.

Ondoren, zerga-, administrazio- eta gizarte-neurri buruzko abenduaren 30eko 50/1998 Legeak aldatu zuen Toki Ogasunen Legearen 107. artikulua. Hain zuzen, eskualdatzailerak Espainian egoitzarik ez duen pertsona fisiko bat denean bakarrik esleitzen zaio zergadunaren ordezkoren izaera erosleari.

Indarrean dagoen estatuko araudiak aipatutako logikari erantzuten dio: gainbalioa lortzen duena ondasunaren jabea da, eta ez eskuratzailerak, hortaz, zerga-sistemaren ikuspuntutik “bidezkoa” izango litzateke zerga lehenengo horrek ordaintzea.

## 2.3 GAINBALIOEN ZERGA ORDAINTZEAREN INGURUKO ITUN PRIBATUAK.

Foru Berriaren 574. legeak eskrituraren gastuak arautzen ditu, eta zera adierazten du, bere bigarren paragrafoan: “Baliozkoak dira eta ondore guztiak sortuko dituzte salerosketaren gaineko zergei eta salerosketaren ondoriozko beste gastuei buruzko itunek, legezko xedapenetan ezarritakoa gorabehera.”

Bestalde, Kode Zibilak hauxe xedatzen du, 1455. artikuluan: “Eskritura egiteko gastuak saltzailerak ordainduko ditu, eta lehenengo kopiaren gastuak eta salmentaren osteko gainerako gastuak erosleak ordainduko ditu, aurkako itunik izan ezean.”

Hala ere, abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legearen 28. artikulua adierazten duenez, “Tributudunaren posizioa eta tributu obligazioaren gaineko elementuak ezin izanen dira partikularren egintzen edo hitzarmenen bidez aldatu. Egintza edo hitzarmen horiek ez dute administrazioarekiko

ondoriorik izanen, haien ondorio juridiko-pribatuak ezertan galarazi gabe”

Gauzak horrela, hemen interesatzen zaigun gaiari helduz, salerosketa negoziatzeko orduan zerga ordaintzearen inguruan saltzaileak eta erosleak sinatu ditzaketen itun pribatuak kontuan hartu gabe, zerga-sistemaren ikuspuntutik, Administrazioak zergadunaren ordezkorengana jo behar du.

#### 2.4. JURISPRUDENTZIA.

Jurisprudentziak dagoeneko jardun du zerga zergaduna ordezkatzeko duen subjektuari kobratzeaz.

Izan ere, Auzitegi Gorenaren arlo zibileko salan 1990eko apirilaren 18an emandako epaiak (RJ 1990/2727) azpimarratzen ditu betebeharrak ordezkari leporatzeko arrazoiak: administrazioaren ikuspuntutik, erosotasuna eta segurtasuna, dagoeneko aipatu dugun bezala. Alabaina, legegileak ez ditu babesten zergadunaren eskubideak. Hala, ordezkia “kobrantza bermatzen duen bitartekaria” da zerga-bilketan, “toki-ogasunarentzat zerga kobratzea eroso eta segurua izateko”, 1998ko abenduaren 30eko epaiaren hitzetan (RJ 1998/9984).

Auzitegi Gorenaren 1990eko apirilaren 18ko epaiak aitortzen duenez, “gainbalioen gaineko udal zerga udalerrian dauden hiri izaerako ondusun higiezinari ezartzen zaie, balio-gehikuntza izan dutenean; balio soberakin hori eskualdatzailearentzat da onuragarria, hortaz, hura da zergadunaren izaera duen pertsona bakarra; eskuratzailerak zergadunaren ordezkia baino ez da izaten, hau da, legearen aginduz, eta eskualdatzailearen ordezkia, zerga-betebehar nagusiaren prestazio material eta formalak bete behar dituen subjektu pasiboa izaten da; horregatik, legearekin bat, edozein kasutan, ordezkariaren kontura ordaindu duen kargaren zenbatekoa berari jasanarazteko aukera du.”

Bestalde, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salak 1997ko apirilaren 19ko epaian (RJ 1997/3151), berriz ere esaten da zerga egitate burutu duena eta zerga ezartzea justifikatzen duen ahalmen ekonomikoa agertzen duena, ondusuna besterentzen duena dela. Edonola ere, horrek ez du oztopatuko zerga ordaintzeko eskuratzailerari –zergadunaren ordezkia izanik– eskatzea, dagokion finantza-administrazioaren bilketa-lanak errazteko –autoen kasuan, tokiko administrazioarenak–, zerga-bilketa eraginkorragoa edo azkarragoa izateko edo zerga ordaintzea hobeto bertetzeko. Epai berak azaltzen duenez: “Beraz, hemen errekurtsioa aurkeztu duenak –hasierako likidazioak eragin dituen lursail batzuen eskualdaketan,

eskuratzailerak batek– uste ez bezala, eskuratzailerak duen edo eskuratzailerak duten tributuerantzukizuna ez da subsidiarioa, funtsezkoa baizik. Are gehiago, esan daiteke zergaduna –eskualdatzailea– bigarren maila batera pasatzen dela, eta ordezkia betebeharrak nagusitzat hartzen dela, ordaindutako zenbatekoa zergadunari erreklamatzeko duen eskubidea –eskubideari itun bidez uko egin ez badiot– eragotzi gabe”

Zergadunaren ordezkorengan figurari dagokionez, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 22an emandako epaian (JT 2000/1616) adierazi denez, “Zergei buruzko Legearen 32. artikulua agindutako ordezkotasuna hitzaren esanahi osoan ulertu behar da. Ordezkoak Herri Ogasunaren aurrean zergadunaren lekua hartzen du ondorio guztietarako. Ordezkoak bakarrik ditu ogasunarekiko betebeharrak. Ordezkapena amaituta, zergaduna Herri Ogasunarekiko obligatiodunen multzotik kanpo geratzen da.”

Auzitegi Gorenak, 2005eko azaroaren 10eko epaian (RJ 2006/314), ondorengo adierazi du: “1999ko uztailaren 24ko gure epaian (RJ 1999/6386) azaldu dugun bezala, Zergei buruzko Legearen 32. artikuluan xedatutakoari jarraiki [lege-bilduma kronologikoa (RCL) 1963, 2490], zergadunaren ordezkorengan figura definitzen edo bereizten duten oharrak hiru dira: lehenik, lotura geratzen da tributuen prestazio material eta formalak betetzeko betebeharrari, hau da, legearen 30. artikulua ezarritako subjektu pasibo ororen ezaugarria du; bigarrenik, ordezkia zergadunaren lekuan jartzen da, izan ere, ordezkioak zergaduna tributuharremanetik baztertu eta haren lekua hartzen du, eta ondorioz, Herri Ogasunarekin lotura duen subjektu bakarra bihurtzen da, zerga-betebeharrari dagokion prestazio material eta formalak betetzera behartuta dagoen bakarra, alegia; eta hirugarrenik, ordezkaren berariazko lege-aurreikuspena eskatzen du –subjektu pasiboa zehazten den bakoitzean bezala, izan ere, subjektu pasiboa zehazten duen manuak “Legearen aginduz” dio hitzez hitz–, horrela, Administrazioak edo norbanakoek ezin dute legeak ezarritako egoera aldatu, eta horrela ere, figura hori egitate jakin batzuen ondorioz sortzen da, eta egitate horiek Legeak ordezkaren ondorioarekin lotzen ditu. Hori dela eta, egitatea burutzen duenaren kargura sortzen den zerga-betebeharrari dagokion zergapeko egitateaz gain, ordezkaren dagokion zerga-betebeharraren eragileaz hitz egin daiteke, eta bi horiek desberdinak dira, lotura izan ohi badute ere”

### III. NAFARROAKO ARARTEKOARI AURKEZTUTAKO KEXAK, PROPOSAMENAK ETA KONSULTAK.

#### 3.1. KEXAK.

Nafarroako Arartekoak herritarren zenbait kexa jaso ditu idatziz zein ahoz, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga ordaintzea Nafarroan arautzen duen legea dela-eta. Izan ere, legeak egonezina eragiten du herritarrengan, horren arabera, erosleak –zergadunaren ordezkotza gisa– zerga ordaintzera behartuta daudelako (zergaren benetako subjektu pasiboa zergaduna izanik).

Gai honi dagokionez, idatziz, bost kexa jaso dira: horietako bi, Uharteko Udalarari buruzkoak izan dira (10/577 eta 14/400); bat, Berako Udalarari buruz (10/182); Tuterako Udalarekin zerikusia duen beste bat (12/12); eta, azkenik, kexa orokor bat (15/498), oro har, zerga kobratzeko sistemarekin desadostasuna adierazten duena, inongo udalaren izenik aipatu gabe.

Kexa horiek guztiak etxebizitza eta ondasun higiezinak erosi duten pertsonak aurkeztu dituzte eta horien bidez desadostasuna adierazi dute, zergadunen ordezkotza direnez, udalek hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren ordainagiria igorri dietelako.

Kexak izapidetu eta aztertuta, erakunde honek jakinarazi zien kexagile guztiei zergei buruzko foru araudiak bidea ematen duela beraiei –zergadunen ordezkotza izateagatik– zergaren ordainagiria igortzeko, ondoren, zenbateko hura saltzaileari jasanarazteko aukera eragotzi gabe.

#### 3.2. HERRITARRENGANDIK JASOTAKO PROPOSAMENAK.

Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari buruzko legedia aldatzeko proposamen batzuk ere jaso ditu Nafarroako Arartekoak herritarrengandik.

Zehazki, hiru proposamen heldu dira: bat, 2009. urtean (P30/09); beste bat, 2011n (P6/11); eta azkena, 2012. urtean (P44/12).

Herritarren proposamenak aztertu ondoren, Nafarroako Arartekoak Nafarroako Gobernu Tokiko Administrazioaren Departamentuari iradoki zion Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 174.1.b) artikulua aldatzeko aukera azter zezala, hain zuzen, kostu bidezko eskualdaketetan, eskuratzaila hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren subjektu pasiboaren (eskualdatzailearen) ordezkotza izateko aukera kendu zezala.

2009ko abenduaren 2an, Tokiko Administrazioaren Departamentuak txosten bat igorri zion erakunde honi eta horren bidez adierazi zuen estatuko legedia ez zela aplikagarria kasu horretan, Nafarroaren eskumen eksklusiboa –Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 46.1 artikuluan zehaztu da eskumen horren emakida– delako. Arartekoak bazekien horrela zela, eta gainera, ez zen arazoaren muina.

txostenaren arabera, Nafarroako gizartean ez zen antzematen gai horren inguruko kezkarik, seguru asko, zerga ordezkotza ordaintzea gizartean onartua dagelako eta erabiltzen diren kontratu-ereduek (zerga ordaintzea erosleari egokitzen diotenez) berretsi egiten dutelako. Bestela, a sensu contrario, eskuratzeko prezioa igoko litzateke, saltzaileak zergaren zenbatekoa azken prezioari gehituko lioke-eta. Izan ere, Tokiko Administrazioaren Departamentuaren iritziz, irizpide hau berretsi egiten da, aipatutako 174.2 artikulua azken paragrafoan aurreikusi den jasanarazpena salbuespen gisa baino ez baita gertatzen.

Hori dela eta, txostenean honako hau jasota zegoen, ondorio gisa: “Arartekoaren idazkian zehaztutako lege-aldaketa eskatzea ez dago Tokiko Administrazioaren Departamentuaren lehentasunen artean. Hala ere, gogoan hartuko dugu Arartekoaren iradokizuna, eta kontuan hartuko dugu, gizarteak hala eskatuta, izapidetzea komenigarria izango denean”.

Herritarrek aurkeztutako azken proposamenari dagokionez, 2013ko urtarrilaren 14an, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak txosten bat igorri zuen, honako hau adierazita: “ordezkoaren figurari dagokionez, esan beharra dago hura egoteko arrazoi nagusia hauxe dela: tokiko administrazioei zergaren kudeaketa erraztea. Gainera, argi utzi behar da ondasuna eskuratzeko duenak, zergaren subjektu pasiboa ez denean, zergaren zenbatekoa eskualdatzaileari jasanarazteko aukera duela (2/1995 Foru Legearen 174. artikulua). Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga bat dela kontuan harturik, proposamena Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari helarazi zaio, baita Iruñeko Udalarari ere. Kasu bietan, erantzun berdina izan da: proposatutako lege-aldaketak jorratu behar dira, alde batetik, araubide erkidearen eremuan zergaren erreforma aurreikusten dela ahaztu gabe, eta bestaldek, toki entitateen finantzaketaren berrazterketarekin loturiko testuinguru orokorrean. Zergari buruzko araudiak ahultasunen bat izan dezakeela onartuta ere, ez dirudi koherentea une honetan baztertzea, hain zuzen, zerga-bilketaren egoera

kezkarria denean. Bestalde, azaldu den bezala, ordezkoren figura neutroa da zerga-bilketaren ikuspuntutik, karga jasanarazteko aukera baitago. Hori guztia kontuan hartuta, esan beharra dago Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak ulertzen dituela proposamena egin duen pertsonaren kezkak, baina, aldi berean, azaldutako gainerako argudioak ere aintzat hartu behar dira, baita zerga-bilketan gerta daitekeen galeraren aurrean toki entitateen egonezina ere.”

Jasotako erantzunak ikusita, ondoriozta daiteke garai bateko Tokiko Administrazioaren Departamentuak eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak, baita Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta Iruñeko Udalak ere, erreparoa dituztela zerga aldatzeko, eta hori ulergarria da, zergak biltzen dituzten administrazioak direlarik, zenbatekoa biltzeko erosotasun eta segurtasunaren alde egon behar dutelako, ordaintzera behartuta dagoen pertsona ordaindu behar duena den edo ez kontuan hartu gabe eta herritarrei eragiten zaien deserosotasuna eta segurtasunik eza alde batera utzita. Horiek horrela, ogasunak tartean duen interesa zergadunaren eskubideen gainetik dago, eta zerga-bilketaren logikak lehentasuna du zerga-sistemaren justiziararen aldean.

### 3.3. KONTSULTAK.

Herritarrentzako Arreta Bulegoak hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari buruzko kontsulta ugari jaso ditu.

Kontsultetan, alde batetik, ordaindu beharreko zenbatekoak aipatzen dira, herritarren iritziz gehiegizkoak direlako, eta bestaldetik, herritarrek galdetzen dute tributuen ikuspuntutik zerga nork ordaindu beharko duen (ondasun higiezin eskualdatzen duen ala eskuratzailleak), eta zein legedi –estatukoa ala forukoa– aplikatu behar den.

## IV. ONDORIOA ETA IRADOKIZUNA.

Gainbalioen gaineko udal zerga ezartzen zaio udalerrri bateko hiriko ondasun higiezinak izan duten balio-gehikuntzari, horren onuraduna ondarena eskualdatzen duen pertsona (saltzailea) izanik. Izan ere, pertsona hura da zergapeko egitatea burutu duena, eta, azken batean, zerga ordaindu behar duena edo zergadun nagusia.

Hori dela eta, logikoa dirudi administrazioak tributu hori subjektu pasiboari, hau da, saltzaileari eskatzea, beharreko likidazioa eginez; horrela,

erosleak ez du behar zergaren zama bere gain hartu, eta gero subjektibo pasibo nagusiarengana jo.

Zergadunari dagokionez, foru araudia eta estatuko legedia bat datoz – zergaduna eskualdatzailea da; alabaina, foru araudiak ordezkoren figura jasotzen du, eta ondorioz, zerga saltzailearen ordezkari ordaindu behar duena eroslea dela uler daiteke, horrek ordaindutakoa saltzaileari eskatu ahal badio ere (Foru Ogasunaren txostenean esan bezala, praktikan oso gutxitan gertatzen da hori).

Foru araudiak ezartzen duen legezko betebeharrak, erakunde honen iritziz, eroslea bazterkeriaz tratatzea dakar berekin, eta Herri Ogasunaren segurtasun eta erosotasun hutsak ezin du hori justifikatu. Gainera, erakunde honen iritziz, Konstituzioaren 31.1 artikuluari jarraiki sistema fiskalak oinarri duen zerga-justiziaren printzipioaren kontrako da, hasiera batean, gainbalioa sortu ez duen pertsona zerga ordaintzera behartzen duela (horren frogara izan daiteke, behin baino gehiagotan arautu ondoren, estatuko araudiak baztertzeko duela ordezkoren figura, zergaduna egoitza atzerrian duen pertsona baten kasuan ez bada). Ondorioz, praktikan, erosle eta saltzailearen arteko harremana hoztu egiten da, kasu bakoitzean zerga nork ordaindu behar duen argi ez dutenez nahasmendua sortzen delako.

Aurreko guztia dela eta, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 16. artikuluko b) eta c) letretan eta 33.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta araudi aplikagarria aztertu ondoren, bidezkotzat jo dugu Nafarroako Parlamentuari –erabakiko duena eragotzi gabe– honako iradokizun hau ematea:

“Nafarroako Parlamentuak alda zezala Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 174.1.b) artikulua, hain zuzen, kostu bidezko eskualdaketetan, eskuratzaillea hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren subjektu pasiboaren (eskualdatzailearen) ordezkaria izateko aukera kendu zezala, Arartekoaren iritziz, arau hura herritarrentzat bidegabea eta kaltegarria baita.”

Horren berri Nafarroako Parlamentuari ematen zaio, jakinaren gainean egon dadin eta, hala bada, gogokio, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Iruñea, 2015eko azaroaren 2a

Nafarroako Arartekoa: Francisco Javier Enériz Olaechea





